



BARREN
TOKUKOM

Zuhaitzen laguna



eibarko la salle azitain



Batxilergorako prest?

artezkoa

zientzietakoa

giza eta gizarte zientzietakoa

La Salle

aurrematrikula zabalik
maiatzaren 2tik 14ra

La Salle
Eibar

www.lasalleeibar.com
emaila: azitain@lasalle.es
Tel: 943 121698

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► EUSKARA BATUTA, CLIKA!

21. Korrika bukatu zenetik egunak pasatu badira ere, oraindik ez zaizkigu ahaztu apirilaren 12an, goizeko 07:00ak inguruan hasita bizi izan genituen emozioak; hura giroa Txarriduna aurrean, Mauxitxa txarangak lagunduta! Ordurako beste asko Altzola aldean ziren, Mendarokoek zekarten lekukoaren zain, logurerik gabe, *Maialen Lujanbiok* idatzitako mezua barruan zeramanari noiz helduko. Herriari buelta eman eta azkoitiarrak zain ziren Azkarate gaineraino eraman zuten hainbat erakunde, lantegi, eskola eta abarretako ordezkariak, Ainhoaren animo hitzek lagunduta.

Mendarokoek ere beste horrenbeste egin zuten, Sasiolan Debakoei lekukoa har-

tuta, eurek ere CLIKA ederki asko eginda. Hau guztia "karrerari" berari dagokionez, baina ezin dugu ahaztu, honek guztiak aurretiko isileko lan eta parte-hartze handia duela. Hori dela-eta, era batean edo bestean, lagun izan zaituztegun denoi eskerrak eman nahi dizkizuegu: AEK euskaltegiko ikasle zein ikasle ohi batzuei; Udaleko Euskara Sailari; udaltzainei; diru ekarpena egin duzuen guztioi (zoritarrez, oraindik ere, AEKn horren premia dugulako); Mauxitxa txarangari; Azkue argazki dendari, Atxutxiri, BARREni... eta, bereziki, Mendaroko lagunei (Borja, Ainara, Lurdes eta Eukene), euren gain hartzeagatik Mendaroko antolaketa. Zuek bai izan zaretela *sistema eragilea!*

Aurtengo edizioan ere parte-hartzea galanta izan arren eta guk hori ikaragarri eskertu, Maialenek idatzitako mezua diena geure egin behar dugu, bakoitzak bere lekutiak: *Norbanakook egin. Herri mugimenduek eragin. Erakundeek eginarazi. Egin, eragin, eginarazi. Aukerak eskaini eta euskara eskatu.*

Dakigunok erabiltzeko klika; eragileek antolaketan klika, administrazioek erabakietan eta baliabideetan klika eta ez dakitenek ikasteko klika. Azken horretarako bidelagun izango dute AEK euskaltegia, beharren arabera eskolak, egutegi eta ordutegi malguekin... Klika AEK, Klika Korrika, klika Euskal Herri euskalduna!

AEK euskaltegia



Sabin Aranburu Arrillaga

2019ko apirilaren 14an hil zen, 87 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaoa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugeriza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Espainiako Gorteetarako hauteskundeak izango dira domekan



Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak egingo dira igandean, apirilaren 28an. Hauteslekuak 9:00etan zabalduko dituzte eta 20:00ak arteko tartea izango dute herritarrek botoa emateko. Elgoibarren, IMHn, Kultur Etxean, Sotoan, Jubilatuen Egoitzan, Pedro Mugurutzako eskoletan, San Rokeko haurreskolan eta Herri Eskolako txanpinoian (Urazandin) egongo dira hauteslekuak, eta Mendaron, udaletxean. Egunak ematen duenaren jarraipena egingo du BARREnek, eta igande gauean Interneten izango dituzte bi herrietako emaitza guztiak.

Maiatzaren lehenengo asteburuan egingo dute Mendaron pintxo lehiaketa

Maiatzaren lehenengo astebururako (4-5 egunetarako) pintxo lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak, herriko ostalaritzari laguntzeko. 12:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik 21:00etara egingo da lehiaketa, eta bi sari banatuko dituzte: pintxo onenaren saria eta epaimahai herrikoien saria. Bigarren saria erabakitzeke, Udalak tabernetan lagako dituen papertxoak bete beharko dituzte herritarrek (Parte hartzen duten guztien artean 50 euroko bi sari banatuko dituzte gero). Lehiaketa herriko bederatzi tabernekin parte hartuko dute, eta pintxoak 1,20 euroan salduko dituzte. Pintxo lehiaketa egingo den bi egunak girotzeko, Bizipoza txarangaren kalejira eta kaleko antzerkia ere lotu dituzte. Ostiralean irtengo dira kalejiran txarangakoak, 19:30ean hasita, eta zapaturako iragarri dute antzerkia. Trapu Zaharrak konpainiakoak etorriko dira Mendarora *Turistatzen* antzezlanarekin. Emanaldia Herriko Enparantzan izango da, 18:30ean hasita.

Mendaroko udalekuean izena emateko azken eguna, gaur

Gaur da Mendaroko udalekuean izena emateko azken eguna. Udalak antolatu ditu, eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak kudeatuko ditu. Bi aukera izango dira: txanda osoa (ekainaren 24tik uztailearen 19ra arte) edo bi txanda laburragoetako bat aukeratzea (bata, ekainaren 24tik uztailearen 5a artekoa izango da, eta bestea, uztailearen 8tik 19ra artekoa). Eskaintza HH2tik LH6ra arteko neska-mutilentzat da. Txanda osorako izena ematea 120 euro dira (180 Mendaron erroldatuta ez dauden umeentzat) eta txanda laburragoetako baterako matrikula 70 eurokoa da (90 Mendaron erroldatuta ez daudenentzat) Familia ugariak deskontuak izango dituzte. Ordainketak honako kontu honetan egin behar dira kontzeptuan umearen izen-abizenak zehaztuta: ES 29 2095 5054 011061225891.

Elgoibarko haur eta nerabeen aisia eskaintzarako diru-laguntzak

Herriko haur eta nerabe guztiak oporraldietako aisia-eskaintzetan baldintza berdinetan parte hartzeko aukera izan dezaten, 6.500 euro emango ditu Elgoibarko Udalak diru-laguntzetan. Eskabideak aurkezteko epea zabalik dago, eta maiatzaren 15ean amaituko da haurrentzako, eta ekainaren 19an, nerabeentzako. Eskaerak Herritarren Arreta Zerbitzuan aurkeztu behar dira behar bezala beteta, edo bestela www.elgoibar.eus-en. Informazio gehiagorako: www.elgoibar.eus.

Asfaltatze lanak Mendaron

Asfaltatze lanak hasiko dituzte Mendaron. Asfaltatuko duten errepide zati luzeena zubi ondoko autobus geltokitik ospitalera artekoa izango da. Hala ere, herriko beste hainbat puntutan ere egingo dituzte errepide berritzeko lanak. Asfaltos Uribe enpresari esleitu dizkio lan horiek Udalak eta 213.184 euroko aurrekontua izango dute. Lanak lau asteren buruan hasi eta bukatu nahi dituzte.

► Enetz Ezenarro alkategaiaren zerrendakideak aurkeztu ditu Mendaroko EHBilduk

Mendaroko EHBilduk esana zuen Enetz Ezenarro izango zela euren alkategaia, baina apirilaren 12an aurkeztu zituen gainerako zerrendakideak. Honako hauek osatuko dute zerrenda: Dorleta Lazarobaster Arakistain, Iñigo Bastida Etxeberria, Sonia Garcia Raposo (gaur egungo alkatea), Olatz Bizkarguenaga Iñarrairaegi, Lurdes Urain Larrañaga, Luis Salgado Gomez, Jabi Muñoz Moreno, Aintzane Lazkano Lizundia, Jon Larrañaga Gorrotxategi, Begoña Ulazia Iriondo, Amaia Etxabe Zulaika, Igor Rey Arrillaga eta Lurdes Rodriguez Barreras (azkeneko hirurak ordezkokoak).



► Mendaroko EAJk aurkeztu du udal hauteskundeetarako zerrenda, Iñaki Arregi buru duela



Otsailean zabaldu zuen Mendaroko EAJk Iñaki Arregi izango zela euren alkategaia, eta asteazkenean aurkeztu zituen Arregik berak gainerako zerrendakideak. Honako hauek osatzen dute Mendaroko EAJren zerrenda: Angel Mari Iriondo Gabilondo, Maite Apellaniz Arriola, Amaia Urra Mardaraz, Nerea Isasi Bedayo, Jose Manuel Muñoz Diaz, Edu Zubiaurre Murua, Alberto Orbegoza Lazarobaster, Irune Iriondo Landa, Raul Santamarta Criado, Azibar Iraolagoitia Gallastegi, Alex Aranberri Babarro, Mari Paz Berasaluze Iriondo eta Ramon Alberdi Artetxe (azkeneko hirurak ordezkokoak).

► Mari Jose Telleria proposatu du PSE-EEK Mendaroko alkate izateko

Mari Jose Telleria Etxeberria (Eibar, 1971), Gipuzkoako Foru Aldundiko Kulturako zuzendari nagusia, izango da alderdi sozialistaren Mendaroko alkategaia. Kazetaritzan lizentziatua da Telleria eta Mendaroko hiru alkategaien artean ibilbide politiko luzeena du. 1999-2015. urteen artean zinegotzi izan zen Eibarko Udalean PSE-EEtik, Kultura eta Gazteriakoa lehenengo eta Merkataritza eta Garapen Ekonomikorako Sailekoa gero. Zerrenda honako beste lagun hauek osatzen dute: Jesus Ofizialdegi Ruiz, Jose Maria Diez Lopez, Maria Nieves Pellus De La Iglesia, Jon Estanislao Grande, Jose Gonzalez Hernandez, Rosa Maria Lorenzo Anza, Julian Gabino Morgado, Maria Dolores Cejudo Jimenez, Miguel Eladio Poza Panero eta Aurelia Vilches Muñoz.



► Javier Otero Herrojo proposatu du PP alderdiak Elgoibarko alkate izateko



Javier Otero Herrojo (Donostia, 1985) izango da PPren hautagaia Elgoibarko alkatetzarako. Ingeniaritza ikasketak egindakoa da Donostian, eta duela lau urteko Udal eta Foru Hauteskundeetan Arrasateko alkate izateko aurkeztu zuten. Gipuzkoako Boletín Ofizialean argitaratu dira alderdi guztien zerrendak, eta hantxe jaso ditugu gainerako zerrendakideen izenak. Honako hauek osatzen dute PPren Elgoibarko zerrenda: Maria Antonia Carmena Arrondo, Antonio Jesus Ortiz Benavente, Alfonso Serrano Sanchez-Capuchino, Laura De Miguel Ramirez, Francisco Javier Perez de Hita, Ana De La Cruz Herrera, Carmen Moreno Rodas, Agustin Calvo Esteban, Antonio Bautista Vilela, Maria Carmen Alonso Gamazo, Rafael Castillo Justo, Jose Luis Nuevo Lomillo, Felisa Davila Sanchez, Ignacio Belmonte Rincon, Montserrat Perez Lopez, Tomas Agrelo Ferrer eta Maria del Carmen Diaz De Bustamente (azkena, ordezkoa)

▶ ANDONI SEGUNDO

IRAKASLEA

‘Elgoibarko zuhaitzak’ liburua idatzi du Andoni Segundok (Elgoibar, 1957), eta Elgoibarko Udalaren laguntzarekin argitaratu du. Natur Zientzietako irakaslea da, eta betidanik izan du natur gaiekiko interesa. Zuhaitzetan jarri du begia oraingoan, eta Elgoibarko herriguneko espazio publikoan dauden zuhaitz espezie desberdinak jaso ditu, gidaliburu praktiko eta erabilgarri batean. 65 bat espezie desberdin aurkitu ditu, eta guztien irudiak sartu ditu liburuan, berak eskuz marraztuta. Horrez gain, hostoak identifikatzeko gako dikotomikoak, zuhaitzen euren kokapena, espezieen ezaugarriak eta beste hainbat datu kurioso jaso ditu liburuan. Euskara hutsean idatzi du liburua, eta doan banatu dute ikastetxeetan.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Nola bururatu zitzaizun Elgoibarko zuhaitzei buruzko liburu bat egitea?

Aspaldiko kontua da. Gaztea nintzela gurasoek Kutzak emandako liburu bat ekarri zuten etxera, Gipuzkoako zuhaitzen informazioa zekarrena. Jolas edo dibertimendu bezala inguruko zuhaitzak sailkatzen hasi nintzen liburuko gidarekin, eta konturatu nintzen zuhaitz bat sailkatzea lortzen nuenean sekulako poza hartzen nuela. Beste modu batean ikusten nituen zuhaitzak sailkatu ostean, nolabait esateko, eta apur bat exageratuz, zuhaitz hori neure lagun bilakatzen zen. Gerora, eskolara ere iritsi zen Euskal Herriko zuhaitz bitxiei buruzko liburu dotore bat, Jaurlaritzak argitaratutakoa. Bergarako zuhaitz bat eta Arrasatekoren bat ere agertzen ziren liburu hartan, eta pentsatu nuen Elgoibarren ere egongo zela zuhaitz bitxiren bat. Horrela hasi nintzen Elgoibarko zuhaitzak sailkatzen. Urte pila bat eman ditut zuhaitzak sailkatzen, eta halako batean konturatu nintzen material pila bat neukala. Liburu batean jasotzea interesgarria izango zela pentsatu nuen, eta Udalera jo nuen. Interesatu zitzaien eskuartean neukana, eta beraiek argitaratu dute. Orain dela bi urte hartu nuen erretiroa, eta azken bi urteotan burubelarri ibili naiz liburuan lanean. Gustura egindako lana izan da, eta lan honi esker pila bat pasiatu dut.

◆ Zein helbururekin egin duzu liburua?

Hasieratik neukan argi gidaliburu praktiko eta erabilgarria egin nahi nuela. Ni ez naiz botanikoa, eta nire asmoa ez zen zuhaitzen ikerketa sakon bat egitea. Interesa eta motibazioa neuzkan gai honetan, baina erraz kontsultatzeko liburua egin nahi nuen. Hasieran ez neukan buruan eskoletan erabiltzeko liburua izatea, baina materiala bildu ahala oso egokia iruditu zitzaidan eskoletarako. Orduan, Udalarari eskaini nion nire lana, eta eskerrak eman behar dizkiet egin zidaten harreragatik eta emandako laguntza guztiagatik. Nik idatzi dut liburua, baina Udalak argitaratu du, eta izugarri eskertzen diet nigan jarritako konfiantza. Nire asmoa ez da inoiz izan liburu honekin dirua irabaztea, eta horre-



“Harritu egin nau Elgoibarren daukagun zuhaitz aniztasunak”

gatik ez dugu salgai jarri. Eskoletan banatu dugu liburua, eta udallexean ere eskuratu daiteke, modu pertsonalean interesa duen edonork ere erabili dezakeelako. Argi utzi nahi dut modu kolektiboan eginiko lanaren lehenengo pausoa dela liburu hau. Garbi dago denborarekin zuhaitz batzuk desagertu egingo direla eta beste berri batzuk sortuko direla, beraz, amaierarik gabeko lana da hau. Nik hasiera eman diot, baina oraindik amaitu gabe dago. Gure asmoa lan hau Udalaren webgunean online jartzea da eta joatea informazioa berritzen. Eta lan horretan edozein herritarren kolaborazioa edo lankidetzatza onartuko dugu; nahi dugu jendeak parte hartzea lan honetan, informazioa osatzen, zuzentzen edo dena delakoa egiten.

◆ Nolako harrera izan du liburua?

Oso ona. Aurkezpen ekitaldira jende asko etorri zen, eta nire lanarekiko jarrera ona erakutsi zuten denek. Euskaraz idatzitako liburu da, eta batek baino gehiagok eskatu dit gaztelaniazko bertsioa, baina momentuz ez daukat liburua itzultzeko asmorik. Euskara hutsean eta euskaraz bakarrik idatzi dut, eta gainera, nahita. Ikusten nuen euskarazko ondare naturala galtzen ari zela eta horrekin kulturaren zati bat. Jendeak ez dakizki zuhaitzen ize-

nak euskaraz; gehienek gaztelaniaz izendatzen dituzte zuhaitzak, eta horri bultzada eman nahi nion. Lan hau egiten ari nintzela konturatu naiz Elgoibarren abizen pila bat daudela zuhaitzen izenetatik datozenak, bai euskaraz eta baita gaztelaniaz ere: Pagoaga, Urkidi, Elortza, Castañares, Arce, Olivares...

◆ Zer jaso duzu liburuan?

Hostoak identifikatzeko gako dikotomikoak, zuhaitzen euren kokapena, espezieen ezaugarriak eta beste hainbat datu kurioso jaso ditut. Liburuko hostoen marrazki guztiak ere neuk egin ditut eskuz. Ez naiz oso trebea marrazten, baina gustatzen zait, eta pazientzia apur batekin denak marraztu ditut. Batzuk hostoa hartu eta kopiatu egin ditut, beste batzuk perfilatu egin ditut, kalkatu ere egin ditut beste batzuk... Horrez gain, zuhaitz bakoitzaren lokalizazioa ere zehaztu dut Google Maps aplikazioarekin. Liburu honek aukera asko ematen ditu, pasiaran joan eta zuhaitzak sailkatzeko. Umeekin jolasteko aukera ere ematen du. Adinaren arabera, gako dikotomikoa erabili daiteke, eta hori ulertzeko gai ez diren umeek marrazkietan oinarrituta sailkatu ditzakete hostoak. Honi lotuta, Morkaikorekin antolatuko dugu irteera gidaturen bat uda aldean, hemen inguruko zuhaitzak sailkatzeko.

◆ Nola sailkatzen dira zuhaitzak?

Gako dikotomikoak erabiltzen dira zuhaitzak sailkatzeko. Hostoaren ezaugarriak kontuan hartuta, gako dikotomikoak bide bat edo bestea aukeratzera eramaten zaitu, eta bukaeran esaten dizu zein zuhaitz den. Prozesua jarraitu behar duzu, nahi duzun organismoa topatu arte. Batzuetan ez da erraza izaten, parkeetan dauden zuhaitz asko hibridoak izaten direlako. Gako dikotomiko pila bat daude, euskaraz oso gutxi egia esan, eta nik sortu dut Elgoibarko zuhaitzak sailkatzeko gako dikotomiko propioa. Gakoa osatzerakoan garrantzitsua da ezaugarri oso zehatzak jartzea, ahalik eta zehatzak eta objektiboak, bestela zaila izaten da hostoa sailkatzea. Gako dikotomikoak oso konkretuak izaten dira, eta Elgoibarrerako balio duen gakoak beharbada ez du balioko Zumairako. Zuhaitz espezie batzuk han eta hemen berdinak



izango dira, eta horiek sailkatzeko balioko du, baina han dauden espezie batzuk seguru hemen ez daudela, orduan Elgoibarko gakoarekin ezingo ditugu sailkatu. Pentsa, gako dikotomikoa bukatzeaz nengoela beste bi zuhaitz espezie aurkitu nituen, eta berriz egin behar izan nuen, bestela bi zuhaitz espezie horiek sailkatzeko ez luke balioko nire gakoak. Ez da erraza gako dikotomikoa prestatzea, baina errazagoa da 65 espezie sailkatzeko balio duen gakoa prestatzea, Euskal Herriko espezie guztiak sailkatzeko balio duena egitea baino.

◆ Zerk harritu zaitu liburu hau egiterakoan?

Elgoibar ez da aparteko herria zuhaitzei dagokionean, baina lan honi esker konturatu naiz gure herrian badagoela zer ikusi eta zer ikasi. Ez daukagu parke edo zuhaitz-gune berezirik lan hau justifikatzeko, baina baneukan kuriositatea Elgoibarren dauden zuhaitz aukerak ezagutzeko, eta benetan harritu nau Elgoibarren daukagun aniztasunak. 65 bat zuhaitz espezie identifikatu ditut, eta hori ez naizela eremu pribatuan sartu. Espazio publikoan jardun dut lanean, bereziki. Baserritar batek bere lursailerako sarbidea eman zidan, han zegoen zuhaitz bat identifikatzeko, baina beste guztiak eremu publikoan aurkitu ditut.

◆ Bitxikerien atal bat ere badauka liburuak. Zer datu bitxi aurkitu dituzu?

Bitxikeria asko aurkitu ditut. Adibidez, munduko zuhaitzik altuena 110 metroko sekuoya bat dela, Elgoibarko elizaren halako bi garaiena, eta espezie horretako bi zuhaitz aurkitu ditut Elgoibarren. Horrez gain, zuhaitzak historikoki oso garrantzitsuak izan dira ekonomian, mitologian... Eta bada zuhaitz bat, hagina, toxikoa dena, baina aldi berean sendatzeko propietateak ere badituena, eta medikuntzan erabiltzen dena minbiziaren kontrako terapietan. Kantabriako mitologian hagina zuhaitz magiko bezala izendatuta dago, eta Elgoibarren ere badago hagina. Datu kurioso asko aurkitu ditut, adibidez, munduko organismorik pisutsuena zuhaitz bat dela ikasi dut: 6.600 tona pisatzen ditu, eta hektarea pila bat hartzen ditu. Bitxikeria hauek biltzen dituen atalari *Bazenekien?* izena jarri diot, eta hor planteatu ditudan galderekin lehiaketa bat antolatuko du Udalak, LH eta DBHko ikasleen artean.





Ainhoa Lendinez

Kazetaria



EITBrentzat Korrikaren jarraipen-lanak egin ditu Ainhoa Lendinezek 21. Korrikan. Mikrofona eskuan hartuta ikusi genuen Mendaron eta Elgoibarren, furgonetako atze alde horretan, eta bizitakoaren kontakizuna egin du hemen.

◆ Zer izan da zuretzat korrikan esatari jardutea?

Txikitatik daukadan amets baten zati bat gauzatzea izan da. 10 egunez furgonetan joatea zen nire ametsa, baina lanarengatik ez da posible izan. Bitarteko bat adostu eta, EITBrentzat Korrikaren jarraipena egin dut egunero, eta tarte libreetan Korrikaren furgonetan bertan joan naiz. Le-loak hitzez hitz esaten saiatzen zara hasieran, baina pixkanaka, barruari entzun eta, sentimenduak etortzen dira ahora. Euskarari eta herriari hauspoa ematea, ez dago hoberik.

◆ Zein izan da une hunkigarriena?

Hamaika une aipatuko nituzke: hunkigarria izan da lekukoa eskuz esku ikustea euskarak oztopo gehien daukan Nafarroako eremuetan; baita elkartasunaren herri, Altsasura, iritsi zenekoa ere; gor-mutu talde batek Debagoienean kilometroa egin zueneko. 10 eguneko alaitasuna,

lekukoak ematen duen indarra, Maialenen mezua. Baina batez ere, furgoneta barruan ezagututako jendearekin bizitakoa gordeko dut betiko. Lan eskergea egiten dute, eta beti, irribarrez.

◆ Beti bizi izan duzu korrika, baina barrutik bizitzea nolakoa izan da?

Gure etxean beti izan da berezia Korrika, aitak eta amak AEKn ikasi zutelako euskara. Korrikaren lekukoa nolabait gurasoek eman zidaten niri. Euskaraz eta euskaraz hazi eta hezi naute, eta lekuko horri eusten saiatzen naiz egunero. Korrikak beti utzi du arrastoa nigan, baina susmoa daukat aurtengoa handiagoa izan dela. 10 egunez Euskal Herriko txoko askotan egon naiz, lorik egin gabe ere bai, tarteka. Ahotsa urratu zait, ehunka kilometro egin ditut autoz eta furgonetaz... Nekatuta amaitu dut oso, baina izugarri pozik. Ametsaren bigarren zatia

bete nahi nuke egunen batean, eta 10 egunez furgonetan joan.

◆ Jendetza batu du Korrikak aurten, eta arduradunen balorazioa oso ona izan da.

Korrikaren resaka emozionala dijeritzen ari naiz oraindik. Ederra izan da Bilbon, Eibarren eta Irunen jendetza ikustea. Baina are ederragoa niretzat, Iparraldean, Erronkarin edo Erriberan, jende askorik gabe, lekukoa goian ikustea. Aurten susmoa neukan lekukoak Maialenen gogoeta zeramala barnean eta izugarri poztu nintzen haren mezua entzutean. Zergatik maite gaituzte horrenbeste korrika ari garenean, eta zergatik hain gutxi oinez goazenean? Beldur naiz, Korrika zer ari garen bihurtzen. Uste dut gogoeta egin beharko genukeela. Euskarak 365 egun dauzka, eta Korrikak hauteskunde kanpaina batean zeharkatu du Euskal Herria.



Euskarari klika

Apirilaren 12an pasatu zen Korrika Mendaro eta Elgoibartik. Kalbariorako bihurgunea baino Elgoibar alderago hartu zuten lekukoa mendarorrek, eta eskuz eskuz erabili ostean, Rodisa parean pasatu zieten elgoibartarrei. 7:40ak aldera iritsi zen Maalara euskararen aldeko lasterketa. Herri-tarek eta Mauxitxa txarangak egin zieten ongi-etorria korrikalariei. Ainhoa Lendinez esatari zela guruzatu zituen gure bi herriak eta Azkoitirako bidea hartu zuen gero. Ondorengo orrialdeotan Korrikak Mendaron eta Elgoibarren egindako ibiliaren errepasoa duzue, argazkitan. Irudi gehiago ikusteko: www.barren.eus



Rodisako LAB.



Alcorta Forging Group S.A.



Etxepe.



Haritz Euskal Dantzari Taldea.



Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea.



IMH, Meka L.H. eta Elgoibar Institutua.



Mauxitxa txaranga.



Elgoibar Ikastolako gurasoak.



Elgoibar Ikastolako langileak.



Txankakua Merkataria Elkarteak.



Elgoibarko EAJ.



AEK euskaltegia.



Haizea Emakume Taldea.



Kimetz Elkarteak.



Goiti kooperatiba



C.D. Elgoibar.



Morkaiko Mendizale




Elgoibarko Udaleko langileak.

Elgoibarko Udalen Euskara Saila.



Elgoibarko EHBildu.

Biharko San Lazaro Egoitza.



Danobat kooperatiba.

Ideko kooperatiba.



Elkarteia.

Sanlo EKT.

Azkue argazkiak.



MENDARO



Lizarpe mendi kluba.



Mendaroko Txirrundulari Elkarte.



Tope Natxiok giza



Motxaila Band.



Ameikutz musika eskola.



Mendaroko Udala.



Bizi Poza txaranga.



Buztin alde, Kilimon eta Aizpe elkarteak.



Mendaroko Ospitalea.

Beste Korrikak



Elgoibarko Korrika Gaztea.



Elgoibarko Korrika Txikia.





proba taldea.



RTS.



Motxaila elkarte.



Mendaroko Gazteleku.



Mendaroko Ludoteka.



Arno Guraso Elkarte.



Mendaroko EAJ.



Mendaroko EHBildu.



Egile.



Elgoibarko Korrika Txikia.



Mendaroko Korrika Txikia.

► SARA BASURTO

MARGOLARIA

Ume-umetatik gustatu izan zaio Sara Basurtori margotzea. Arkatzak, margoak eta pintzelak zituen umetan lagun, eta gaur egun, espatula erabiltzen du bereziki. 17 urte ditu, eta Batxilergo Artistiko Plastikoa ikasten ari da Eibarren. Orain dela bost urte hasi zen Gemma Monrealen eskolaz jasotzen, eta dagoeneko bere estreinako erakusketa zabaldu du. Hilaren 30era arte egongo dira ikusgai bere obrak Kultur Etxean.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Zer dago ikusgai zure erakusketan?

Denetik jarri dut apur bat. Koadro errealista batzuk badaude, baina bereziki manga japoniar estiloko marrazkiak daude, tinta eta akuarelaz egindakoak. 17 koadro eta 30 marrazki jarri ditut guztira.

◆ Nola animatu zara erakusketa antolatzeraz?

Gemmaren [Monreal] kontua izan da bereziki; berak animatu nau. Eskerrak eman behar dizkiot 12 urte ditudanetik alboan daukadalako laguntzen eta animatzen. Ondo marrazten dudala esaten dit, eta horrek ilusio handia egiten du. Orain arte nik eta nire ingurukoek, etxeok eta lagunek bakarrik ikusi dituzte nire lanak, eta apur bat urduri nago nire obrak publikoari erakusteko. Pozik nago erakusketarekin, baina aldi berean, urduri ere bai. Ordu asko eskaini dizkiot erakusketari. Astelehenetik ostiralera egunero joaten ibili naiz Gemmaren estudioa.

◆ Nola hasi zinen margotzen?

Umetatik gustatu izan zait. Umetan beti marrazten egoten nintzen. Gehiena nire kabuz ikasi nuen, marrazkiak kopiatzen. Gerora Paula Herasen eskoletara joaten hasi nintzen, eta Eibarren ere jaso nituen beste pintura klase batzuk. Orain dela bost urte, 12 urterekin, Gemma Monrealen klaseetara joaten hasi nintzen.

◆ Zein teknika erabiltzen duzu?

Pintzelarekin hasi nintzen, teknika ikasteko modu erraza goa delako, baina orain, espatula erabiltzen dut. Esaten dutenez, espatula erabiltzeko gutxieneko maila bat beharrezkoa da.

◆ Zein modutan lortzen duzu margotzeko inspirazioa?

Batzuetan musika entzuten margotzen dut, eta beste batzuetan isiltasunean kontzentratzen naiz hobeto. Entzuten dudana musikaren arabera marrazkiak desberdinak irteten zaizkit. Musika alaiak poza ematen du, eta lasaiak, batzuetan, tristura, eta hori koloreetan igarri egiten da.

◆ Zer da marraztea gehien gustatzen zaizuna?

Manga japoniar estiloko irudiak marraztea gustatzen zait batez ere, fantasiako irudiak. Kolore asko nahasteko aukera



“Pozik nago erakusketarekin, baina aldi berean, urduri ere bai”

ematen dute, eta niri hori gustatzen zait. Kolore biziak erabiltzen ditut nire lanetan, eta fantasiak ematen dit koloreekin jolasteko aukera. Ez daukat gehien gustatzen zaidan kolore bakar bat ere, beraz, denak erabiltzen ditut. Dena dela, zuri-beltzean ere egiten ditut marrazkiak, eta paisaje errealistak ere egiten ditut batzuetan. Oraindik ez daukat nire estiloa guztiz definituta, eta pixkat denetik margotzen dut.

◆ Batxilergo Artistiko Plastikoa ikasten ari zara. Aurrera begira, zein dira zure asmoak?

Arte Ederrak ikastea gustatuko litzaidake, baina oraindik beste urte bat geratzen zait Batxilergoa amaitzeko. Arte Ederrak lau urteko ikasketak dira. Lehenengo urteak denontzat berdinak dira eta gero espezialitatea aukeratu behar da. Oraindik ez dakit zer aukeratu ahal izango dudana, baina niri ilustrazioa da gehien gustatzen zaidana, eta ahal izango banu, alor horretan lan egitea gustatuko litzaidake.

Mauxitxaren 50. Txiki Eguna ospatzeko bazkaria antolatu dute txarangako kideek aurtengo Txiki Egunerako

Mauxitxa Txarangak bazkari berezia antolatu du aurtengo Txiki Egunerako, 50 Txiki elkarrekin lelopean. Sigmako aparkaleku estalian izango da bazkaria, txarangaren kalejiraren ondorenean. Izan ere, aurtengo Mauxitxa Txarangak girotu eta alaitutako 50. Txiki Eguna izango da, eta mende erdi hori herriarekin eta herritarrekin ospatzea nahi dute. Abuztuaren 26an izango da Txiki Eguna, astelehenean. Mauxitxa Txarangak 12:00etan hasiko du kalejira, eta 14:00etan argazki erraldoia aterako dute Kalebarren Plazan, Kultur Etxe aurrean. Ahalik eta herritar gehien batu nahi dituzte argazkirako, beraz, ordu horretan San Frantzisko iturri ingurura gerturatzeko deia egin diete herritarrei. Argazkiaren ondoren, Errosario kaletik jarraituko du kalejirak Ka-



legoen plazara arte, eta 16:30ean Sigmarako bidea hartuko dute, denek elkarrekin. 17:00etan izango da bazkaria.

Euskal Parrila catering enpresak presatuko du bazkaria, eta ondorengo menua eskainiko dute: entsalada mixtoa, lumagorri oilaskoa eta sahieskia parrilan, Eceiza etxeko pastelak eta kafea. Edateko ardoa eta sagardoa eskainiko dituzte. Zapiak,

kamisetak eta txapak ere atera dituzte egun berezi horretarako, beraz, bakoitzak eskatzen duenaren arabera ordainduko du. Informazio gehiagorako eta izena emateko ondorengo web ataria kontsultatu behar da: <https://labur.eus/mauxitxaonlineenda>.

Izena emateko azken eguna uztailaren 15a jarri dute.

'Artea familian' tailerra antolatu dute sormena landu eta euskararen erabilera sustatzeko



Elgoibarko Izarraren Kiribilduz egitasmoak eta Egur Arte Tailerrak antolatu dute elkarlanean *Artea familian* izeneko tailerra, Udalarekin lankidetzan. Helburu bikoitza du: Guraso eta seme-alaben artean, eta familia ezberdinen artean, euskararen erabilera sustatzea eta sormena lantzea. Maiatzaren 5ean eta 12an izango dira saiok, Egur Arte Tailerrean (Merkatu plazako lehen solairuan), 10:00etatik 13:00etara, eta HH5etik LH2ra arteko umeek eta horien gurasoek parte har dezakete. Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunearen bulegoan (Ubitarte 4, behean) zein Egur Arte Tailerrean eman daiteke izena. 8 euro ordaindu behar dira ikastaroan parte hartzeko (6 euro Elgoibarko Izarrako bazkideek eta Egur Arte Tailerreko ikasleek).

Iñigo Cearsolok Getariako banda zuzenduko du

Iñigo Cearsolok Getariako musika banda zuzenduko du domekan, apirilaren 28an. Getarian bertan izango da kontzertua 13:00etatik aurrera, San Prudentzio ermitan. Cearsolok zuzendari ikasketak bukatu ditu, eta tarteka zuzentzen ditu kontzertuak. Oraingoan zuzendari gonbidatu gisa arituko da.



Astigarraga GYS sport taldeak ez zuen lortu Espainiako txapelketako azken faserako sailkatzerik

Espainiako jubenil mailako txapelketako kanporaketa jokatu zuten Olaizaga kiroldegian Astigarraga GYS Sport, Liberebank Pereda (Kantabria), Angel Optico Zamora (Zamora) eta Malkaitz Eskubaloia (Nafarroa) taldeek, eta azken hauek irabazi zuten kanporaketa. Astigarraga GYS Sport taldeak eskura izan zuen garaipena, baina azken partidaren ezin izan zion Nafarroako Malkaitz taldeari irabazi. Beraz, Nafarroako taldeak lortu zuen Espainiako txapelketako azken faserako sailkatzea.

Era berean, senior emakumezkoen lau taldeak zilarrezko mailara igotzeko fasean sartzeko kanporaketa jokatu zuten Donostiako Bera-Bera, Zarauzko Aiala, Portugaleteko C.B. Jarrilleras taldeen kontra, eta elgoibartarrek ezin izan



zuten aurrera egin. Portugaleteko C.B. Jarrilleras taldea sailkatu zen hurrengo faserako.



Andoni Armendiak eskubaloia utziko du denboraldi amaieran

Andoni Armendia Alcorta Forging Group taldeko kapitainak eskubaloia utziko du denboraldia amaitzen denean. 18 urte egin ditu Armendiak Sanlon, eta azken 11 denboraldietan Alcorta Forging Group senior taldeko kapitaina izan da. 11 denboraldi hauetan hainbat lorpen eskuratu ditu taldearekin: Besteak beste, bost denboralditan Lurraldeko Bigarren Mailatik Lehen Nazional Mailara igotzea lortu du, eta beste sei urtez, taldea Lehen Nazional maila horretan mantzentzea lortu du.

Pibote postuan jokatzen zuen hasieran, eta bere postu naturala ezker hegalean dagoen arren, jaurtitzaila eta bat baten kontrako joko azkarra duen jokalaria da Armendia. Kategoriako goleatzaile nagusietako bat izan da denboraldi askotan. Klubeko arduradunen iritziz, maila handiko jokalaria da, eta pertsona gisa, are hobea. Bi partida geratzen dira denboraldia amaitzeko, eta bihar jokatuko du etxeko azken partida Olaizaga kiroldegian, 19:30etik aurrera.

Maiatzaren 25ean jokatuko dute Debarreneko raida, Deban

Morkaiko mendizale taldeak antolatuta Debarreneko V. raida jokatuko dute maiatzaren 25ean, Deban. Aurreko edizioetan bezala, bi modalitate prestatu dituzte: batetik, binaka egiten den zazpi orduko abentura proba, eta bestetik, bi orduko raid familiarra. Abentura probak mendi bizikletako sekzio bakarra edukiko du, eta bi trekking saio. Horrez gain, herri barruan egin beharreko orientazio sekzio bat ere egongo da. Tartean, proba bereziak ere izango dira, hala nola, hondartzan egingo diren jokoak, eskalada eta espeleologia proba bat, besteak beste. Raid familiarra, bestalde, oinez edo korrika txikian egingo da, eta joko eta proba bereziak edukiko ditu: Slackline, hondartzan jokoak, orientazio joko espezifikokoak...

Raid bat orientazio proba bat da, eta helburua, mapa baten markatuta egongo diren ahalik eta puntu gehienetatik pasatzea da, probak irauten duen bitartean. Ez da egongo derrigorrez lortu beharreko punturik, beraz, bakoitzak bere indar eta ahalmenaren arabera moldatu ahal izango du proba.

Informazio gehiago eta izen emateak, ondorengo webgunean: <https://debarrenaraid.wordpress.com/>

Real Sociedad eta Racing de Santander taldeek jokatuko dute domekan Mintxetan

Emakumezkoen futbolak hartuko du Mintxeta, domekan: Real Sociedad eta Racing de Santander taldeek Elgoibar Trofeoa Kirolaren 2019ko Hiri Europarra Kopa jokatuko dute, 12:00etan hasita. C.D. Elgoibar emakumezkoen futbola sustatzeko lanean ari da, eta Realarekin elkarlanean antolatu dute partida hau. Sarrera doan izango da.



Aurrematrikula maiatzaren 2tik 14ra




ATE IREKIAK

maiatzaren 2an

18:00etan



Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 E-mail: 012055aa@hezkuntza.net



I. URTEURRENA

Gloria Arzalluz Eguia

2018ko apirilaren 20an hil zen, 92 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilaren 27an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldeaz aurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

Maria Luisa Lejardi Ondarra

2018ko apirilaren 21ean hil zen, 65 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, hurrengo barixakuan, maiatzaren 3an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldeaz aurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

Santi Arrese Cengotita

2018ko apirilaren 29an hil zen, 58 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilaren 27an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldeaz aurretik eskerrak.



LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Ordutegi malgua.
☎ 632 292 690

Neska euskalduna goizez umeak zaintzeko prest. 7:00etatik 9:30era eskolara eramango nituzke.
☎ 666 667 183

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai.
☎ 602 360 043

Pertsona euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Titulua eta esperientzia handia ditut.
☎ 626 490 986

Adinekoak nahiz umeak zaintzeko prest nago. Etxeko garbiketa lanak ere egiten ditut. Erreferentzia onak ditut.
☎ 689 571 882 / 666197 831

Edozein lan egiteko prest nago.
☎ 643 961 051

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan eta gauzez ere bai. Esperientzia, erreferentzia onak eta titulazioa ditut.
☎ 632 490 649

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan.
☎ 631 975 260

Adinekoak zaintzeko prest nago. Erizain laguntzaile moduan esperientzia daukat.
☎ 632 752 739

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 627 230 784

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo asteburuetan.
☎ 631 906 590

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 632 247 918

Garbiketarako egiteko edo beste edozein lanerarako prest nago.
☎ 632 548 689

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta titulua ditut.
☎ 671 989 434

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Ordutegi malgua.
☎ 632 292 690

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. Asteburuetan ere bai.
☎ 643 932 943

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat eta mendeko pertsoneri arreta sozio-sanitarioa emateko ziurtagiri profesionala.
☎ 671 989 434

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest. Asteburuetan ere bai.
☎ 657 363 453

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai. Malgutasun osoa.
☎ 612 476 921

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai. Orduka, asteburuetan eta etxeko langile moduan jarduteko prest.
☎ 612 574 783

Erizaina lan bila. Pertsona nagusiak zaintzeko prest.
☎ 632 752 739

Ostalaritzan jarduteko edo adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia handia.
☎ 602 811 319

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan aritzeko prest.
☎ 664 087 760

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Etxeko lanak egiteko ere prest nago.
☎ 688 825 514

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko prest nago. Orduka edo asteburuetan.
☎ 612 296 098


Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko prest nago. Orduka edo asteburuetan.
☎ 602 027 589

30 urteko esperientzia duen zaintzaile euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Tituluduna. (Elena Agirre)
☎ 943 742 330 / 660 511 781

Eskaintzak
Langile euskalduna behar da Elgoibarko denda batean lan egiteko. *buruagaltzen@gmail.com*

ETXEBIZITZAK.....
Logela bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. IMHko ikaslea naiz.
☎ 690 944 234


OSPAKIZUNAK.....
1969koen kinto bazkaria maiatzaren 18an, Sigma jatetxean. 12:00etan bertako dira Leku Ederren, eta 12:30ean aterako dute argazkia. 69 euro ordaindu behar dira, kontu honetan: ES53 3035 0007 2500 71136817




Estefania Cantero Cabanillas

2019ko apirilaren 23an hil zen, 88 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Consejo Estatal de Colegios de Administradores de Empresas
Entidad Pública Administradora Local de Asturias



ROSA M^a
PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Etxejabeon azkeneko batzarrean antena parabolikoa jartzea adostu genuen, telebista kanal gehiago ikusi ahal izateko. Jabekide batzuk, baina, ez zeuden ados eta jakin nahiko nuke ea nortzuk ordaindu behar duten antena jartzea.

Legeak dio telekomunikazioen zerbitzuetarako sarbidea izateko azpiegitura komunak instalatzea edo daudenak egokitzea, energia aprobetxamendurako sistema komunak edo pribatiboak jartzea edota energia hornitzaile kolektibo berrietara egokitzeko lanak egitea komunitateko heren baten (partaide kuotaren heren bat ordezkatzeko) oniritziarekin adostu daitekeela.

Azpiegitura komun horiek jartzeak eta egokitzeak suposatzen duen gas-tua, ez eta haien geroko mantentze-lanen kostua ere ezingo die komunitateak batzarrean baietza eman ez duten etxejabeek ordainarazi. Hori bai, gerora etxejabe horiek telekomunikazio zerbitzu horretarako edo energia hornitzailearako sarrera beharko balute, eta horretarako lehendik jarritako azpiegiturak baliatu behar badituzte edo haietan egindako egokitzapenak, hasieratik ordaindu beharko luketen kopuru osoa ordaindu beharko dute, kopurua eguneratuta eta dagozkion interes legalak gehituta.


AHOLKUA: Azpiegitura berria elementu komun gisa hartuko da, eta beraz, haren mantentze-kostuak komunitateak hartu beharko ditu bere gain.



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak gure printzesa **Nahiri** 10 urte bete dituelako. Elgoibarko familiako guztien partez, muxu handi bat.




Zorionak, **Unax**, hilaren 28an 11 urte beteko dituzulako. Etxeko guztien partez.



Zorionak, **Ane**, gaur 4 urte egin dituzulako. Nuria, Leire eta Maialenen partez. Ondo pasa!



Zorionak, **Ane**, gaur 4 urte egin dituzulako. Familiako guztien partez, muxu handi bat.



Zorionak, **amama**, gaur 93 urte egin dituzulako! Segi horrela! Familiako denon partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Irati**, gaur 6 urte biribil-biribil bete dituzulako. Asko maite zaituzten aitaxo, amatxo eta Madiren partez.



Bai ondo pasatu genuela zure 5. urtebetetzean! Zorionak, eta muxu handi bat etxekoien partez.



Aupa, **Jare!** Bihar 5 urte! Muxu zaparrada etxekoien partez. Izugarri maite zaitugu!



Zorionak, **Lucia-txo**, asteartean 4 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat etxeko guztien partez.



Mila kilo zorion, **Ane**, atzo urteak bete zenituelako. 6 muxu handi etxekoien eta batez ere, Iker eta Mirenen partez.

IKASBAI
AKADEMIA

IKASGO
ACADEMY

667 261 248
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademielgoibar@gmail.com

<p>IKASGO ACADEMY</p> <ul style="list-style-type: none"> ● INGELES ERREFORTZUA ● CAMBRIDGE AZTERKETAK ● TALDE TXIKIAK 	<p>IKASBAI AKADEMIA</p> <ul style="list-style-type: none"> ● LH ETA DBH ● GAI GUZTIAK ● EUSKARA ERREFORTZUAK
---	--



LAGUNAK
colchonera textil hogar

Bisita gaitzazu!


San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

UDABERRI-UDARAKO OIHAL BILDUMA BERRIA

- Neurrira egiten ditugu estore, gortina eta ohazalak.
- Oihaletan aukera zabala.



RPS 18312



40.
urteurrena
UZURI
optika audio

ELGOIBAR - DEBA

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

www.uzurioptika.com

► **Maiatzeko eskaintza:**

Zure lentillak erostean,
10 €ko balea
eskuratuko duzu dendako edozein
produktu erosteko.



► **Maiatzeko zozketa:**

Moschino Fresh Couture EDT lurrin botea
eta
POLICE etxeko erlojua




28 DOMEKA

12:00 Real Sociedad B eta Racing de Santander taldeen arteko partida. Mintxetan.

29 ASTELEHENA

19:00 Epeletan euskal literatur tailerra. Antonio Tabucciren *Pereirak dioenez* liburua landuko dute. Udal Liburutegian.

30 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra: Leon Tolstoyren *Guerra y paz* liburua landuko dute. Haizeak antolatuta, Udal Liburutegian.

18:30 Sara Basurtoren margolanak ikusteko azken eguna. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

3 BARIKAKUA

11:00 Santa Kurutz Eguneke meza, San Rokeko ermitan.

18:30 Erakusketa: Egur arte tailerreko umeen lanak. Hilaren 11ra arte, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Zinea (Herriko Antzokian)

'Soinujolearen semea'

26 barixakua: 21:30
27 zapatua: 19:00 / 22:15
28 domeka: 19:00
29 astelehena: 21:30
1 eguaztena: 19:00

'Arizmendiarieta: El hombre cooperativo' (Ongarri zinekluba)

2 eguena: 21:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
26 BARIKAKUA	27 ZAPATUA	28 DOMEKA	29 ASTELEHENA	30 MARTITZENA	1 EGUAZTENA	2 EGUENA	3 BARIKAKUA
Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez *Garitaonandia	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez *Fernandez	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Etxeberria	Iluntzean *Fernandez	Iluntzean *Fernandez	Iluntzean Yudego	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean *Fernandez	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte gutzian, gauz: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498



Araceli Uria Retolaza

2019ko apirilaren 19an hil zen, 48 urte zituela.

*Zurekin hasi genuena jarraitzeko,
indarra emango digu zure oroimenak.
Beti egongo zara Nuala lagunen bihotzetan.*



Concha Manrique Reguero

2019ko apirilaren 21ean hil zen, 97 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Araceli Uria Retolaza

2019ko apirilaren 19an hil zen, 48 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.***

Etxekoak



Araceli Uria Retolaza

2019ko apirilaren 19an hil zen, 48 urte zituela.

***Guretzat izan zarenagatik eta
erakutsi diguzun guztiagatik
beti izango zaitugu gurekin.
Maite zaitugu.***

Zure lagunak




Araceli Uria Retolaza

2019ko apirilaren 19an hil zen, 48 urte zituela.

***Amaren adorea
famiarentzat balorea
munduarentzat ondarea.***

Ander eta Mikelen ikastolako lagunak.






Jose Luis Azpillaga



Argazkia ikusi orduko, akordura etorri zaizkit Azpeitia aldeko Ibaiederreko presa batzuen irudiak. Oroitzen naiz nola joaten ginen gaztetxotan bertan bainatzera udako oporretako arratsalde luzeetan. Bizi-bizi etortzen zaizkit gogora uraren burrunba eta usaina, eta nolako ikara sorrarazten zidan haren indarrak.

Askotan gertatzen zait gauza bera: argazki edo irudi bat ikusi eta buruak oroitzapenen kuxara jotzea alegia. Zuei ez? Diotenez, oroitzea bi aldiz biziitzea da. Agian horregatik gustatuko zaigu horrenbeste argazki zaharrak ikustea edo oroitzapenei buruz berbetan jardutea. Zahartzearekin lotuta ere egon liteke joera hori: ekiteko indarrik ezean nahiago dugu, antza, lehengo kontuak gogoratu eta haiak berrituz gozatu. Edadeko pertsona batzuen joera nabarmena da hori.

Txekhov ipuingile errusiarrek esana omen da: "Errusiarrek atsegina dute oroitzea biziitzea baino". Ez dakit euskaldunok nolakoak garen. Baina nik biak ditut gustuko: oroitzea atsegin dut, eta beharrezkoa dela uste dut. Denon ditugu gure begien hondoan - Sarrionaindiaren esateko modua erabiliz hainbat pertsona, toki eta gertaera. Baina biziitzea ere gustuko dut. Horregatik, argazkiari berriz begiratu ondoren, datorren udan horrelako leku bat topatu eta bertan bainatzeko gonbita edo bultzada ere ikusten dut, edo, zergatik ez, baita ur-jausia dagoen Burgosko Tobera herria bisitatzea ere.



Iñigo Lamelas

"Argazkiari berriz begiratu ondoren, udan horrelako leku bat topatu eta bertan bainatzeko gonbita eta bultzada ere ikusten dut"

ELGOIBAR 2019 MAIATZA



50€-KO EROSKETA 40€-REN TRUKE

Baldintzak:

- Baliagarria 2019/05/02tik 2019/05/31ra arte.
- Elgoibarren erroldatuta daudenentzat.
- Bonu bat NAN (helbidea indarrean izan beharko da) edo erroldatze bakoitzeko.
- 100€ arteko bonuak meta daitezke.
- Gutxienez, 25€-ko erosketa egin behar da.

Bonuak maiatzaren **2tik 31**ra erosi ahal izango dira.
(agortu arte)

Salmenta:
Kalebarren Plazan

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
9:00-13:00
17:00-19:00



Elgoibar BHI

2019-20 Batxilergorako aurrematrikula Maiatzaren 2tik 14ra

BATXILERGOA (BH)

Gizarte Zientziak
Humanitateak

Osasun Zientziak
Zientziak eta Teknika

Artistiko Musikala

Giza eta
Gizarte
Zientziak

Zientziak

Artea



**ATE IREKIAK: MAIATZAREN 2AN, 18:30EAN,
INSTITUTUKO ARETOAN (MEKA ERAIKINA)**

943 899 316

013431aa@hezkuntza.net

